

**2004KO URRIAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO
BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita zortzia

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta lau

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzietan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Arantxa Aseginolaza Azkargorta

Imanol Aranburu Gutierrez

Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga

ETORRI GABEA: Pello Garaialde Goikoetxea

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2004ko ekainaren 23ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUA KONTRATATZEA. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren esleipena.

Ezagutzera eman da, Kontratazio-mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzarrak, 2004ko ekainaren 23an egindako datarekin, erabaki zuen deialdi bat egitea, Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza-zerbitzua, lehiaketa bidez kontratatzeko, horretarako baldintza plegu administratibo eta teknikoa onartzuz.

II.- Deialdia 2004ko uztailaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean ondorengoak aurkeztu ziren:

	Lanegunak	Jaiegunak
LENDIG SERVICE, S.L.	13,38 + 0,94 IVA	14,32 + 1 IVA

GSR Gestión Servicios Residenciales	13,39 + 0,94 IVA	
BIHARKO GIPUZKOA, S.L.	13,39 + 0,94 IVA	13,39 + 0,94 IVA
BB SERVEI-ARRETA ZERBITZUAK, S.L. (UTE)	12,93 + 0,91 IVA	16,16 + 1,13 IVA

III.- Aurkeztutako eskaintzak zerbitzu teknikoek aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak 2004ko urriaren 18an egindako bileran erabaki zuen, BB SERVEI-ARRETA ZERBITZUAK, S.L. (UTE), lizitatuile enpresarekin elkarrizketa bat izatea, honek aurkeztutako prezioa kontrastatzeko, izan ere lizitazio prezioarekiko baja garrantzitsua suposatzen du.

BB SERVEI-ARRETA ZERBITZUAK, S.L. (UTE), enpresarentzat zerbitzuaren kostua osatzen duen kontzeptuak aztertu ondoren, enpresa honek proposamena erretiratzea erabaki zu, eskainitako prezioaren kalkuluan akats bat dagoelako eta horren ondorioz, eskainitako baldintzetan zerbitzua ematea enpresarentzat defizitarioa izango litzateke.

IV.- Beste proposamenak, baldintza pleguaren 17. artikuluan adierazitako irizpide-adjudikazioaren arabera baloratu dira eta ondorengo puntuazioa lortu dute:

	Lendin Service, S.L.		G.S.R.		BIHARKO	
Prezioa	0		0		0	
Eskarmentua	6		1,5		0	
(gia-agiria/titulazioa)	0	0	2	4	0	4
Hobekuntza	2,5		4		4	
Kalitatea	2		4		4,5	
GUZTIRA	10,5		15,5		12,5	

Beraz, Kontratazio Mahaiak eskuduntza duen organoari ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA egiten du:

Lehenik. Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza-zerbitzua, “**GSR Gestión Servicios Residenciales, S. COOP.**”ri esleitzea, 13,39 € gehi 0,94 €

BEZ / orduko, prezioan, onartutako baldintza pleguen eta adjudikaziodunaren eskaintzaren arabera.

Bigarren. Zerbitzua 2004ko abenduaren 1etik aurrera ematen hasiko da eta kontratuaren epea urtebetekoa izango da; hala ere, urtebeteko luzatu ahal izango da, betiere ezein alderdik, kontratua amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago ez badu salatzen. Dena dela, kontratuak guztira, luzapenak barne, ezin iraungo du lau urte baino gehiago.

Hirugarren. Hamabost eguneko epean idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, enpresa adjudikaziodunak, udal gordailuzaintzan 12.490 €ko behin betiko fidantza aurkeztu beharra dauka, jarraian dagokion kontratu administratiboa sinatu ahal izateko.

Laugarren. Gaur egun zerbitzua ematen duen LENDIG SERVICE, S.L. enpresari adieraztea, 2004ko azaroaren 30ean Beasaingo Udalarekin duen kontratu-harremana bukatutzat emango dela eta hain zuzen ere, hori izango dela Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua eman beharko duen azkeneko eguna”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- UDAL KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETA

Proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak, aldez aurretik lizitazio prozedura izapidetuta, 2002ko azaroaren 20ko bileran erabaki zuen, Beasaingo kirol gunea handitu eta birmoldatzeko proiektua idazteari buruz “Fernando Andrés Pérez, D. Guillermo Ortego Carretero, Euroestudios, S.L., Unión Temporal de Empresas, Ley 18/1982”ei esleitzea, 245.510,69 €tan, BEZ barne.

II.- Dena dela, baldintza administrazioari buruzko Pleguaren 1. Artikuluaren arabera, 2003ko otsailaren 12an kontratua formalizatu zen, ondoren aipatzen diren dokumentuak idazteko:

- Aurreproiektua:	37.533,79 €
- Oinarrizko proiektua:	22.520,27 €
- Egikaritze proiektua:	45.040,55 €
- Segurtasun Azterlana:	3.916,77 €
- Kalitate kontrola eta geotekniko azterlana:	48.890,25 €

Izan ere obra zuzendaritza eta obra-egikaritze zuzendaritzaren kontratua formalizatzea, Beasaingo udal kirol gunearen birmoldaketari buruzko proiektua onartzearen baitan zegoen.

III.- Baina, 2003ko azaroaren 28ko Gobernu Batzordeak, Kontutan izanik, kirol-gunean berri gehiago aurreikusi direla eta dudarik gabe interes publikoa dutela orokorrean instalazioak asko irabaziko duelako, 2003ko otsailaren 12ko kontratuaren bigarren klausula aldatzea erabaki zuen, egikaritze-aurrekontua 5.000.000 €tik 8.247.267,65 €ra pasatu delako eta horren ondorioz, proiektuaren idazlan-kostua, obra zuzendaritza barne 419.804,01 €koa da:

Beasaingo Udalak bere aldetik, “D. FERNANDO ANDRES PEREZ, D. GUILLERMO ORTEGO CARRETERO EUROESTUDIOS, S.L. 18/1982”, enpresen denboraldiko elkarteari jarraian aipatzen diren diru-kopuruak ordaintzeko konpromisoa hartzen du, aipatutako dokumentuak aurkeztu eta onartzen direnean, 2003ko otsailaren 12an sinatutako kontratuan aipatzen diren epeetan:

- Aurreproiektua:	61.910,31 €
- Oinarrizko Proiektua:	37.146,18 €
- Egikaritze Proiektua:	74.292,38 €
- Segurtasun Azterlana:	6.460,54 €
- Kalitate Kontrola eta geotekniko azterlana	80.642,28 €

IV.- 2004ko urriaren 13an Udalbatza Osoak erabaki zuen, “Beasain Lantzen, S.A.ri” udal kirol gunearen sustapena eta etorkizuneko instalazioen kudeaketa enkargatzea. Erabaki hau kontutan izanik,

Gobernu Batzarrari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio:

“Udal kirol gunearen obra zuzendaritza eta obra-egikaritze zuzendaritza, naiz Segurtasun eta Osasun Plana eta Segurtasun Koordinazioaren kontratazioa, “D. FERNANDO ANDRES PEREZ, D. GUILLERMO ORTEGO CARRETERO, EUROESTUDIOS, S.L. UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, UTE”ri esleituta dagoena, “Beasain Lantzen, S.A.”ri enkargatzea, EHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA HOGETA HAMABI ZENTIMOTan (159.352,32 €), onartutako baldintza pleguen eta adjudikaziodunak aurkeztutako proposamenaren arabera.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galdera atalean, gazteek Kiroldegiaren ondoan dagoen pabiloiaren okupazioari buruz hitz egin da. Azaroaren erdialdera, eman beharreko pausoen berri jakin eta ondoren erabakia hartzeko, bilera bat egingo da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaiketan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.